1. SEKTOREKO AZTERKETA

Zestoa

18

AURKIBIDEA

1. SARRERA 4

1.1 HELBURUA 4

1.2 METODOLOGIA 4

2. ZESTOA 4

2.1 HERRIA 4

2.2 GEOGRAFIA 5

2.3 DEMOGRAFIA 5

2.4 EKONOMIA 7

3. LEHEN SEKTOREA 10

3.1 BASERRIAK 10

3.2 ESPLOTAZIO MOTAK 11

3.3 SALMENTA BIDEAK 13

3.4 LURZORUAREN ERABILERA 16

3.5 ZIURTAGIRIAK 18

3.6 ESTALDURA ETA KIDETZA 19

3.7 PROFESIONALTASUN MAILA ETA LANGILE KOPURUA 21

3.8 TRANSFORMAZIO GUNEAK ETA PRODUKTUEN BALIO ERANTSIA 23

3.9 ONDORENGOTZA 24

4. BERTAKO PRODUKTUEN KONTSUMOA 25

4.1 ZESTOAKO ELIKAGAIEN ESTABLEZIMENDUAK 25

4.2 ZESTOAKO JATETXE ETA TABERNAK 25

4.3 ZESTOAKO JANGELA KOLEKTIBOAK 26

5. HERRIKO AZOKA 26

5.1 AZOKAREN EGOERA 26

5.2 AZOKAREKIKO ALDAKETAK, PROPOSAMENAK 27

5.3 AZOKAN PARTE HARTZEA 27

6. TURISMOA 27

6.1 TURISMOAREN ERAGINA HERRIAN 27

6.2 TURISMOAREN ERAGINA EKOIZLEEI 28

6.3 ALDAKETAK EDO PROPOSAMENAK 28

7. BEHARRA, PROPOSAMENAK, ESKAERAK 29

7.1 ETORRA 29

7.2 AKUA 29

7.3 AIZARNA 29

7.4 MEAGAKO ERREPIDEA 30

7.5 LASAO 30

7.6 ENDOIA 30

7.7 ARROA BEHEA 30

7.8 ARROA ERREKA 30

7.9 ARROA GOIKOA 31

7.10 OROKORRAK 31

8. EKINTZA PLANA 33

1. SARRERA

1.1 HELBURUA:

Zestoako udalaren helburuen artean dago lehen sektorea indartzea eta baserritarrak eta bertako produktuak balorean jartzea.

Nabarmena da, gaur egun herri, eskualde, probintzia, lurralde mailan ustiaketetan errelebo generazional baten falta dagoela. Honen aurrean, denok ados gaude zerbait egin behar dela, lehen sektorearen desagerpenaren lehen urratsak burutu ez daitezen.

1.2 METODOLOGIA:

Bi eratako informazio iturri erabili ditugu txosten hau garatzeko orduan:

1. Estatistika serie ofizialak: Grafikoak eta taulak partekatzen dira txostenean, aztertutako datuen interpretazioa errazagoa eta garbiagoa izateko. Hauek informazio iturri ezberdinetatik jasotako datuekin osatu ditugu, esaterako EUSTAT (Euskal Estatistika erakundea), gipuzkoa.net, Euskadiko jarduera ekonomikoen zerrenda, INE (Estatistikako institutu nazionala), www.gaindegi.eus , www.datuak.eus , www.atlasa.net , www.euskalgeo.net , Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun ministerioa, Lanbide, datuak.eus, sepe.es , Zestoako udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa irekia, www.foro-ciudad.com .

2. Elkarrizketa pertsonalak: Azterketarako beharrezkoak genituen datuekin inkesta eredu bat osatu dugu, baserriz baserri egindako elkarrizketetan informazioa jasotzeko erabili duguna. Elkarrizketak, 2018ko Maiatzaren 10ean hasi eta 2018ko Uztailaren 11ren bitartean egin ditugu. Azterketaren berri emateko, Zestoako udaletik eskutitz informatibo bat bidali zaie aukeratutako baserritar laginari. Baserritar denekin telefono bitartez jarri gara kontaktuan. Auzoka banatu ditugu eta banan bana denekin hitz egiten saiatu gara, orokorrean atseginez hartu gaituzte. Adostutako zerrendan dauden eta elkarrizketak egin ez ditugun ustiaketak ere badaude; hau bi arrazoiengatik gertatu da, bata titularrek hitz egiteari uko egin diotelako (adindun pertsonak direlako edota ez direlako sektoretik bizi) eta bestea ezin izan garelako beraiekin kontaktuan jarri (kontaktua gaizki dugulako edo ez dutelako deia erantzun).

2. ZESTOA

2.1 HERRIA:

Zestoa, Gipuzkoako iparraldean dagoen barrualdeko udalerri bat da, Urola Kosta eskualdekoa.

2.2 GEOGRAFIA:

Urola Ibaiak herria zeharkatzen du. Pagoetako natura parkearen zati bat Zestoa udalerrikoa da.

2.2.1 Udalerri mugakideak:

Mendebaldean Deba, iparraldean Zumaia eta Aizarnazabal, ekialdean Aia eta hegoaldean Azpeitia eta Errezil ditu mugakide.

2.2.2 Auzoak:

Zestoako auzoak honakoak dira: Aizarna, Iraeta, Endoia, Arroa Goia, Arroa behea, Arroa erreka, Lasao, Bedua, Akua, Etorra, Ibañarrieta eta Txiriboga.

2.3 DEMOGRAFIA:

2.3.1 Biztanleriaren bilakaera. 1900-2017:

1900 urtetik gaur egunera, Zestoako biztanleriaren hazkundea handia izan da 2017 urteko datuekin konparatuta. 1900 urtean, 2.661 biztanle zeuden eta 2017an 3.713, %139,53 gehiago.

ZESTOAKO BIZTANLEGOAREN BILAKAERA 1900-2016			
Urtea	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
2017	1.950	1.763	3.713
2016	1.966	1.768	3.734
2015	1.956	1.758	3.714
2014	1.922	1.734	3.656
2013	1.923	1.727	3.650
2012	1.924	1.737	3.661
2011	1.915	1.740	3.655
2010	1.856	1.688	3.544
2009	1.806	1.673	3.479
2008	1.769	1.657	3.426
2007	1.768	1.642	3.410
2006	1.712	1.599	3.311
2005	1.659	1.561	3.220
2004	1.577	1.527	3.104
2003	1.559	1.522	3.081
2002	1.592	1.532	3.124
2001	1.607	1.531	3.138
2000	1.618	1.522	3.140
1999	1.647	1.535	3.182
1998	1.646	1.536	3.182
1996	1.687	1.564	3.251
1995	1.733	1.582	3.315
1994	1.747	1.605	3.352
1993	1.760	1.611	3.371
1992	1.772	1.594	3.366

1991	1.786	1.597	3.383
1990	1.863	1.682	3.545
1989	1.874	1.698	3.572
1988	1.888	1.699	3.587
1987	1.887	1.706	3.593
1986	1.881	1.711	3.592
1981	0	0	3.778
1970	0	0	4.384
1960	0	0	4.201
1950	0	0	3.552
1940	0	0	3.106
1930	0	0	3.128
1920	0	0	2.998
1910	0	0	3.009
1900	0	0	2.661

Taula 1. Zestoako biztanleriaren bilakaera 1900-2017 (Iturria: www.foro-ciudad.com)



Grafika1. Zestoako biztanleriaren bilakaera 1900-2017 (Iturria: www.foro-ciudad.com)

2.3.2 Biztanleriaren dentsitatea:

2017 urtean, Zestoak 3713 biztanle zituen eta 43,69 kilometro karratuko azalera. Hau horrela izanik, 84,99 biztanle zituen kilometro karratuko.

Zestoako biztanleriaren %52,52a gizonezkoa da eta ondorioz % 47,48a emakumezkoa.

Euskal Autonomi Erkidegoan, 2.189.257 biztanle zeuden 2015 urtean 7234 kilometro karratuko azalera batekin. 302,63 biztanle kilometro karratuko dentsitatea. Gipuzkoako kasuan, 716.834 biztanle zeuden 1997 kilometro karratutan, hau da 358,95 biztanle kilometro karratuko.

Landa eremuaren biztanleria dentsitate orokorra daukagu, 2015ekoa Gipuzkoa mailan. 104.617 pertsonakoa da, hau guztiaren %15,1a. (Datu hauek INE bidez jakin ahal izan ditugu).

ZESTOAKO BIZTANLERIA. SEXU ETA ADINAREN ARABERAKOA 2017			
Urtea	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
0-4	121	93	214

5-9	145	106	251
10-14	116	78	194
15-19	70	80	150
20-24	64	83	147
25-29	93	93	186
30-34	129	106	235
35-39	156	145	301
40-44	177	143	320
45-49	144	120	264
50-54	169	119	288
55-59	145	135	280
60-64	99	85	184
65-69	107	78	185
70-74	73	80	153
75-79	48	58	106
80-84	57	81	138
85-	37	80	117
Guztira	1.950	1.763	3.713

Taula 2.Zestoako biztanleria. Sexu eta adinaren arabera 2017. (Iturria: INE padrón municipal 2017)



Grafika2. Zestoako biztanleria. Sexua eta adinaren arabera 2017. (Iturria: INE padrón municipal 2017)

Biztanleriaren sexu eta adinaren datuetan oinarrituz, biztanleriaren %30,76a 0-29 urte artean dago, %50,42a 30-64 artean eta %18,82a 65 urtetik gorakoak dira, hau horrela izanda, orokorrean biztanleria gaztea dela esan dezakegu.

2.4 EKONOMIA:

Argitaratuta dauden azken datuak kontuan hartuta, Zestoa, Urola Kosta, Gipuzkoa eta Euskal Autonomi Erkidegoko datuak alderatuko ditugu.

2.4.1 Balio Erantsi Gordina:

2015eko datuei begirada bat botatzen badiogu, Zestoan sektorerik garrantzitsuena industriarena dela esan dezakegu, nahiz eta gertutik jarraitzen dion zerbitzuen sektorea. Nekazaritza eta arrantzaren sektorea da pisu gutxien duen sektorea.

BALIO ERANTSI GORDINA (%)					
	Urtea	Zestoa	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
Nekazaritza-arrantza sektorea	2015	1,60	1,90	0,61	0,79
Industria sektorea	2015	56,17	34,36	27,83	24,26
Eraikuntza sektorea	2015	2,49	7,54	6,02	5,98
Zerbitzu sektorea	2015	39,74	56,19	65,55	68,98

Taula 3. Balio Erantsi Gordina 2015. (Iturria: Eustat, Zestoako udalmap).



Grafika3. Balio Erantsi Gordina sektoreka, Zestoa 2015 (Iturria: Eustat, Zestoako udalmap).

2.4.2 Okupazio tasa:

2016 urtean, okupazio tasarik baxuena Zestoan, Urola Kosta, Gipuzkoan eta Euskal Autonomi Erkidegoan nekazaritza eta arrantza sektorean izan zen eta altuena berriz zerbitzuen sektorean.

16 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLE LANDUNAK (%)					
	Urtea	Zestoa	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
Nekazaritza-arrantza sektorea	2016	3,63	2,08	0,97	1,11
Industria sektorea	2016	29,49	29,09	23,07	19,22
Eraikuntza sektorea	2016	6,23	5,97	5,52	5,79
Zerbitzu sektorea	2016	60,62	62,84	70,43	73,86

Taula4. 16 urte edo gehiagoko biztanle landunak 2016. (Iturria: Eustat, Zestoako udalmap).

Grafika 4. 16 urte edo gehiagoko biztanle landunak sektoreka Zestoan 2016. (Iturria: Eustat, Zestoako udalmap).

2.4.3 Erregistratutako langabezi tasa:

Langabezi tasa modu proportzionalean banatzen da, sektore garrantzitsuenetan tasa altuagoa izanda, ala nola, 2012ko Abenduaren 31an erregistratutako datuen arabera, Gipuzkoan %63,49ko tasa zegoen zerbitzuetan, %18,56 industrian, eraikuntzan %6,82a eta %1,31, baxuena, nekazaritza-arrantzan.



Grafika5. Langabezia sektoreka Gipuzkoan. (Iturria: Estatuko lanerako zerbitzu publikoa. 2012/12/31).

Langabeziaren 2017ko datu orokorrak ditugu, non Zestoan 16 eta 64 urte bitartean %8,19koa zen, Urola Kostan 6,84a, Gipuzkoan %7,52a eta Euskal Autonomi Erkidegoan %9,17a.

45 urtetik gorakoen langabezi datuak berriz honakoak ziren: Zestoan %7,87a, Urola Kostan %7,12a, Gipuzkoan %8,17a eta Euskal Autonomi Erkidegoan %9,70a.

Epe luzerako 16 eta 64 urte arteko biztanleen langabezi tasa honakoa zen, Zestoan 3,79a, %2,99a Urola Kostan, %3,72a Gipuzkoan eta Euskal Autonomi Erkidegoan %4,85a.

ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA TASA(%)					
	Urtea	Zestoa	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
16-64 urte arteko biztanleak	2017	8,19	6,84	7,52	9,17
45 urte edo gehiagoko biztanleak	2017	7,87	7,12	8,17	9,70
Epe luzekoa (16-64 urte bitartekoak	2017	3,79	2,99	3,72	4,85

Taula 5. Erregistratutako langabezia tasak (%) 2017. (Iturria: Eustat, Zestoako udalmap).



Grafika6. Erregistratutako langabezia tasak (%) 2017. (Iturria: Eustat, Zestoako udalmap).

3. LEHEN SEKTOREA

3.1 BASERRIAK:

Elkarrizketak egiten hasi aurretik, beharrezkoa iruditu zaigu Zestoako herrian erroldatuta dauden baserrien zerrenda bat egitea, honela guztiak identifikaturik eduki eta elkarrizketa nori egin erabakitzeko.

Lan hau egiteko, baserri guztien lagin bat erabili nahi izan dugu eta zein baserri aukeratu erabakitzeko irizpide ezberdinak hartu ditugu kontuan; NLU (Nekazaritza Lan Unitatea) batetik gorakoak eta Udaleko ordezkariekin adostutako ekoizleen sailkapen bat egin genuen, gure azterketa aurrera eramateko beharrezkoak zirela iruditu baitzitzaigun.

Lehen azpi sailkapen bat egiteko, guk genituen datuak erabili ditugu; bertan bakoitzaren NLU-ak izan ditugu kontuan. Kasu honetarako NLU batetik gorako baserriak hartu ditugu kontuan, beraiekin hitz egitea interesgarriagoa iruditu zaigulako gure azterketarako.

Zerrenda horrekin, udaleko ordezkariekin bildu ginen, beraiekin adosteko zerrenda horretatik norekin hitz egin, beraiek hauen datuak eguneratuagoak dituzte eta. Baita ere

zerrenda horretan agertzen ez diren ekoizleren bat beraientzako interesgarria bada ere, berarekin elkartzeko.

Azpi sailkapen hau egin ostean, 61 baserri/ekoizleren taula orokor bat egin dugu.

Identifikazioarekin amaitu ostean, beraiekin kontaktuan jartzen saiatu gara. Zestoako 61 ekoizletik 31rekin elkartzea lortu dugu.

Gu izan gara bertaratu garenak, ondoen etortzen zitzaien egun eta orduan, eta beraiek esandako tokira, baserritarrei/ekoizleei dena errazagoa izateko.

3.2 ESPLOTAZIO MOTAK:

Elkarrizketak burutu ondoren, jarduera tipologia ezberdinen arabera sailkapen bat egin dugu, guztira zazpi jarduera ezberdinetan sailkatu ditugu. Kontuan hartzeko, interesgarria iruditu zaigu landa eremuan edo baserrian bizi diren pertsonak baina jarduerarik ez dutenak edo lehen sektoretik bizi ez direnak sailkapenean sartzea.



Grafiko 7. Baserrien jarduera tipologia.

Baserri batzuek jarduera bikoitza, hirukoitza edo gehiago egiten dutela kontuan hartu behar dugu.

Emaitza hauek ikusita, esan genezake Zestoako jarduera nagusia abeltzaintza dela, 26 ekoizlerekin. Frutarbolekin lan egiten dutenak hiru ekoizle dira eta ostalaritzako zerbitzuren bat daukatenak beste hiru. Baratzean lan egiten dutenak berriz bi dira, arrautzekin lanean ibiltzen diren berdinak. Produktu elaboratuak egiten dituzten bi ekoizlerekin topatu gara. Azpimarratzeko datua iruditzen zaigu, bildu garen ekoizle guztien artean bi baserri soilik direla jarduerarik ez dutenak.

Jarduera	Baratza	Frutarbolak	Abeltzaintza	Ostalaritza	Elaboratuak	Arrautzak	Jarduera eza
Portzentajea	%5,13	%7,69	%66,67	%7,69	%2,56	%5,13	%5,13

Taula 10. Baserrien jarduera tipologia (%).

Aurreko sailkapena egiterakoan, argitu beharra ikusten dugu jardueraren bat dutela aipatzen dugunean, baserrian jarduera horretatik diru sarreraren bat jasotzen dutela dela eta jarduera eza aipatzean, ez dagoela diru sarrerarik.

Esan beharra dago, jarduerarik ez daukaten baserriak, nahiz jardueraren bat dutenak, beraien kontsumorako ere lantzen dutela.



Grafiko 8. Baserrien jarduera kopurua.

Goiko grafikoa kontuan hartuta, ikus dezakegu 31 esplotazioetatik 23k jarduera bakarra dutela, 4k bi jarduera, ekoizle bat da hiru jarduera burutzen dituena eta baita ere bat da lau burutzen dituena. Jarduerarik ez dutenen kopurua bikoa da.

Baserriko jardueretatik diru sarrerarik ez dutenen %50 baratza dauka autokontsumorako. Biak, animaliak (ardiak) dituzte lur sailak garbi mantentzeko.

Hitz egin dugun 31 baserrietatik, 20 dira kanpoko diru sarrerak ere badituztenak, hau da, 11k etxetik kanpo ere lan egiten dute eta bederatzik pentsioa edo ezgaitasun dirua kobratzen dute. Bederatzi hauetan daude jarduerarik ez daukaten bi baserriak. Beraien hitzetan, beste diru sarrera bat ez balukete edukiko, ezinezkoa izango litzateke esplotazioaren aktibitatea mantendu. Hamaika dira berriz, ekoizten dutenetik bizi direnak, ez daukatenak kanpoko diru sarrerarik.

3.2.1 <u>Abeltzaintza:</u>



Grafiko 9. Abeltzaintzaren jardueraren banaketa azpi jardueretan.

Abeltzaintza lantzen duten ekoizleetatik, hamabost dira azpi jarduera bakarra lantzen dutenak, hauetatik hamahiruk okeletarako behiekin egiten du lan eta birek esne behiekin.

Hamar ekoizle dira bi azpi jarduera lantzen dutenak, hauetatik laurek okeletako behiak eta arkumeak lantzen dituzte; beste birek esnetarako eta okeletarako behiekin egiten dute lan. Ekoizle bat dago txerriak eta haragitarako behiekin lan egiten duena; baita ere bat da esne behiekin eta arkumeekin jarduten duena; bat da baita ere txerriak eta arkumeak lantzen dituena; eta ekoizle bat aurkitu dezakegu baita ere esnetarako behiekin eta oiloekin lan egiten duena.

Ekoizle bat aurkitzen dugu hiru azpi jarduera lantzen dituena, berak esnetarako behiak, okeletarako ganadua eta arkumeekin egiten du lan.

3.2.2 Baratzagintza:

Bildu garen ekoizleen artean, bik bakarrik egiten dute lan baratzean. Batek babarrunak bakarrik lantzen ditu eta besteak garaiko barazki ezberdinak gero bere jatetxean prestatzeko.

3.2.3 Frutarbolak:

Hiru dira sektore hau lantzen dutenak. Hiruek sagarrekin egiten dute lan.

3.2.4 Ostalaritza:

Hiru esplotazio aurkitu ditzakegu ostalaritzaren munduan lan egiten duena.

Bat jatetxe bat da eta baratza eta abeltzaintza ere lantzen ditu, baina produktu horiek jatetxean zerbitzatzeko dira.

Beste esplotazio bat aurkitu dezakegu abeltzaintza lantzen duena baina baita ere landetxe bat daukana eraikinean.

Azkenik bestea, bakarra da ostalaritza lantzen duena, baina esplotazioan landetxea edukitzeaz gain, taberna eta jatetxea ere badauzka.

3.2.5 Elaboratuak:

Datu harrigarri bat da, 31 pertsonekin bildu ondoren, bik bakarrik lan egitea produktu elaboratuekin. Bi ekoizle daude eta biak gazta egiten dute.

3.2.6 Arrautzak:

Bi ekoizlek egiten dute lan arrautzekin. Batek ez du beste azpi jarduerarik lantzen eta besteak berriz bai.

3.3 SALMENTA BIDEAK:

Salmenta bideak aztertzerakoan, egokiena jardueraren araberako sailkapena (ikus 7. grafikoa 8. orrialdea) jarraitzea iruditu zaigu eta horrela salmenta jarduera ezberdinak aztertu.

3.3.1 Abeltzainen salmenta bideak:

Abeltzainen salmenta ezberdinak aztertzeko, lehen egindako banaketa (ikus 9.grafikoa 9. orrialdea) kontuan hartzea erabaki dugu. Banaketa horretan ikus daitekeen moduan, zazpi ekoizle daude esne behiekin lan egiten dutenak, 21 haragitarako behiekin, zazpi ekoizlek arkumeekin, txerriekin bi ekoizlek eta oiloekin batek. Azpi jarduera bat baino gehiago lantzen duten ekoizleen kasuan, azpi jarduera bakoitzaren salmenta bidea hartu dugu kontuan.

Esnetarako behiez hitz egiten dugunean, zazpi ekoizle aurkitzen ditugula aipatu dugu. Ohikoena, salmenta Kaikuri egitea da. Beheko grafikoan ikusi ahal izango dugun bezala, bost ekoizlek salmenta Kaikuri egiten diote eta bi ekoizlek, Kaikuri egiteaz gain, salmenta zuzena egiten dute, etxean bertan edo azokaren batean.



Grafiko 10. Esnearen salmenta bideak.

Haragitarako behiez hitz egitean, 21 ekoizle ezberdinez ari gara hitz egiten. Hauek aztertzerakoan, salmenta bide ezberdinak agertu dira.



Grafiko 11. Haragitarako behien salmenta bideak.

Ikus dezakegunez, zazpi ekoizle dira txahalak 6-7 hilabete dituztela gizendegi batetara saltzen dituztenak eta baita ere zazpi dira harategi batetara saltzen dutenak. Lau ekoizle dira hiltegi bati saltzen dietenak. Ekoizle bat aurkitu dezakegu hiltegira eta harakinei saltzen

dietenak, baita ere bat da tratulari bati saltzen diona. Ekoizle baten kasua da txahalak etxean salmenta zuzenaren bidez bizik saltzen dituena eta baita ere ganadu feria ezberdinetan ibiltzen dena sariak irabaziz eta baita ere bertan salmentak burutzen.

Arkumeen kasuan, zazpi ekoizle dira beraiekin lan egiten dutenak. Beheko grafikoan ikusi daitekeen bezala, bost dira salmenta hiltegira egiten dutenak, batek etxean egiten du salmenta eta beste ekoizle batek arkumeak hazten ditu berak daukan jatetxean zerbitzatzeko.



Grafiko 12. Arkumeen salmenta bideak.

Txerriekin lan egiten duten bi ekoizle aurkitu ditugu. Bata Basatxerrin bazkide da eta bertara saltzen ditu txerriak eta bestean berriz, beraren jatetxerako hazten ditu.

Jarduera honekin amaitzeko, **oiloak** gelditzen zaizkigu. Ekoizle bakar bat dago eta salmenta zuzena egiten du etxean.

3.3.2 Barazkien salmenta bideak:

Esan bezala, bi ekoizle dauzkagu barazkiekin lan egiten dutenak. Batek, garaiko barazki ezberdinak ekoizten ditu eta berak daukan jatetxean erabiltzen ditu plater ezberdinak prestatzeko. Besteak berriz, babarrunekin bakarrik egiten du lan, Tolosako babarrunekin hain zuzen ere, eta elkarteari egiten dio salmenta.

3.3.3 Fruten salmenta:

Puntu honetan, frutak orokorrean saltzen dituzten ekoizleak aztertuko ditugu. Hiru ekoizle aurkitzen ditugu eta hiruak sagarrekin egiten dute lan eta hiruak sagardotegi ezberdinei egiten diete salmenta.

3.3.4 Produktu elaboratuen salmenta:

Bi ekoizle daude elaboratutako produktuak egiten dituztenak, hain zuzen ere gazta egiten dute biak. Beraien salmenta bidea azoketan da, esaterako Azpeitiko azoka plazan.

3.3.5 Arrautzak:

Arrautzekin ere bi ekoizlek egiten dute lan, batak bi salmenta bide ezberdin erabiltzen ditu, batetik dendetara saltzen du eta bestetik jatetxe ezberdinetara; besteak berriz etxean salmenta zuzena bidez saltzen du.

3.4 LURZORUAREN ERABILERA:

Urola Kostako laborantza azalera guztira 21.799,72 hektareatakoa da. Azalera hamaika herrialdetan dago banatua. Horrela da banaketa horren emaitza: Aia %16,77; Azkoitia %18,42; Azpeitia %23,59; Beizama %3,95; Errezil %8,95; Getaria %3,28; Aizarnazabal %3,04; Orio %1,99; Zarautz %3,38; Zestoa %14,33 eta Zumaia %2,30.



Grafiko 13. Urola Kostako laborantza azalera banaketa herriz herri hektareatan, 2016 (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia).

Hurrengo grafikoan (grafiko 14), Urola Kostan alta emanda dauden lurren erabilera ezberdinak zein diren ikusi ahal dugu eta bakoitzak zein eremu kantitate okupatzen duten. Lur eremu handiena baso eremua da, 13.001,49 hektarearekin eta ondoren bazka-landareena, 7.267,35 hektarearekin. Eremu txikiena berriz loreena da 1,45 hektarearekin.



Grafiko 14. Alta emanda dauden lurren erabilera ezberdinak Urola Kostan hektareatan 2016. (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia).

Zestoako kasuan, eremurik handiena baso eremua da, 1.980,64 hektarearekin eta ondoren bazka-landareen eremua 1.029,63 hektarearekin. Aipatzekoa da, loreen kasuan eremurik ez dagoela.



Grafiko 15. Alta emanda dauden lurren erabilera ezberdinak Zestoan, hektareatan, 2016. (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia).

3.4.1 <u>Ekoizleen lurrak:</u>

Gaur egungo ekoizle bakoitzaren lur sailen egoera aztertzeko, beraiekin hitz egindakoari erreparatzea pentsatu dugu.

Puntu hau aztertzerakoan, elkarrizketatu ditugun 31 ekoizleren erantzunak hartu ditugu kontuan.

Lehenik ekoizleen egungo egoerari erreparatuko diogu.



Grafiko 16. Ekoizleen gaur egungo lurren egoera.



Grafiko 17. Ekoizleen lurren egoera.

30 ekoizlek erabiltzen dituzte beraien lurrak eta hauetatik 12k beraienaz gain besteen lurrak dituzte alokatuta. Ekoizle batek adierazi digu berak jabegoan ez daukala lurrik eta esplotazioa alokatu zuenean berarekin lurrak zetozela eta horiek erabiltzen dituela.

Bederatzi ekoizlek esan digute ez daudela prest lurrak uzteko. Zortzi ekoizle agertu dira lurrak uzteko prest, baldin eta beraiek libre edukiko balituzkete. Zortzi dira baita ere egoera horretan ez dutenak pentsatu eta ez dakitenak lurrak utziko lituzketen edo ez. Hiru ekoizlek zaila ikusten dute egunen batean beraien lurrak beste norbaiti uztea. Ekoizle batek adierazi digu jabegoan ez daukala lurrik eta bat da baita ere jada beraren lurrak utzita dituena. Azkenik, ekoizle batek adierazi digu lur falta handia dagoela Zestoako herriko auzo guztietan eta pertsonalki berak lur falta bat daukala.

3.5 ZIURTAGIRIAK:

Puntu hau aztertzerakoan, jarduera duten ekoizleak hartu ditugu kontuan. Hau horrela izanik, 29 ekoizleren datuak aztertu ditugu.

Aztertutako 29 ekoizleetatik, 18k ziurtagiriren bat daukate eta 11k ez.

Sagardoa sagardotegira saltzen duten hiru ekoizleak Euskal Sagardoa zigiluaren barruan dauden sagardotegietara salten dute.

Ekoizle bat dago Ekologiko zigiluaren barruan lan egiten duena, berak arrautzekin egiten du lan. Bat da baita ere, ostatua, taberna eta jatetxea dituena, "Calidad Turistica" zigilua duena.

Giokela zigilua duten bi ekoizle daude.

Eusko Label zigiluaren barruan lan egiten duten ekoizleen banaketa horrela izango litzateke: babarrunak lantzen dituen ekoizle bat; arkumeekin soilik lan egiten duen beste bat; okeletarako ganadu eta txerriak lantzen dituen bat; eta esne behiekin lan egiten duen beste bat. Haragitarako ganaduarekin eta arkumeekin lan egiten duten lau ekoizle eta sei okeletarako ganaduarekin soilik lan egiten dutenak.



Grafiko 18. Ekoizleen ziurtagiri ezberdinak.

Aurreko grafikoaren azalpen bat:

1. Ekoizleek ziurtagiri bat baino gehiago eduki dezakete, hain zuzen ere hiru ekoizle dira bi ziurtagiri dituztenak.

3.6 ESTALDURA ETA KIDETZA:

3.6.1 Estaldura:

Puntu honetan ere jarduera duten ekoizleak hartu ditugu kontuan, hau da 29 ekoizleren datuak landuko ditugu.



Grafiko 19. Nekazal Gizarte Asegurua.

Ekoizle guztietatik, 19 ekoizlek Nekazal Gizarte Aseguruaren barruan garatzen dutela adierazi digute eta 7 ekoizlek ezezkoa agertu dute. Bi ekoizlek ez dakite zein den beraien egoera eta batek ez digu erantzun nahi izan.

3.6.2 Kidetza:

Jarduera duten 29 ekoizletatik, hogei dira elkarteren baten parte direnak.

Aipatutako hogei ekoizle hauetatik, 15ek elkarte bakar batean hartzen dute parte, lauk bi elkartetan eta bat dago hiru elkarteren parte dena.

Nekazal sindikatuen presentzia agertzen da, bai ENBA nahiz EHNEk bakoitzak bi kide ditu elkarrizketatuen artean. Nabarmentzeko datua da, Nekazal sindikatuez gain, ELA sindikatua agertzen dela, ekoizle bat da bertako parte.



Grafiko 20. Baserritarren kidetza.

3.7 PROFESIONALTASUN MAILA ETA LANGILE KOPURUA:

3.7.1 Profesionaltasun maila:

Puntu honetan ere, aurrekoetan bezala jarduera duten 29 ekoizleren datuak aztertuko ditugu.

29 ekoizletik hamalau dira autonomo bezala dihardutenak, hauetatik hamabik Nekazal Gizarte Aseguruan alta emanda daudelarik. Bat ez dago alta emanda (berak ostalaritza munduan egiten du lan, jatetxe bat dauka) eta beste ekoizleak ez daki beraren egoera zein den.

Aztertutako 29tik lau dira jubilaturik daudenak, hauetariko birek oraindik Nekazal Gizarte Asegurua ordaintzen dutelarik.

Lau ekoizle dira beste batentzat lanean daudenak, lauak etxetik kanpo lanean jarduteaz gain, esplotazioan aktibitatea daukate.

Elkartu garen ekoizleetatik birek daukate elkarte bat eratuta.

Ekoizle bat dago ez diguna erantzun nahi izan, ez zein egoeratan egiten duen lan ezta Nekazal Gizarte Aseguruan alta emanda dagoen edo ez.

Azkenik, gelditzen zaizkigun lau ekoizlek ez zekiten beraien egoera zein zen.



Grafiko 21. Ekoizleen profesionaltasun maila.

3.7.2 Langile kopurua:

Jarduera duten 29 ekoizletatik, sei dira langileak dauzkatenak. Hiru ekoizleren kasuan, bakoitzak langile bana dauka kontratatuta.

Ekoizle bat dago hiru langile dituena kontratatuta eta uda partean langile kopurua igo egiten da, sei langile edukitzera iristen da.

Bost langile dituen ekoizlea ere bakarra da eta asteburuetan zazpi edo zortzi langile edukitzera iritsi daiteke. Esan beharra dago, bera eta langileez gain bere amak eta bikoteak ere egunero bertan jardute dutela lanean.

Ekoizle bat, dago bederatzi langile dituena.

Langilerik ez daukaten ekoizleak dira gehiengokoak, 23. Esan beharra dago, gehienei familiako senideek edota lagunek beraien denbora librean laguntzen dietela.



Grafiko 22. Ekoizleek daukaten langile kopurua.

3.8 TRANSFORMAZIO GUNEAK ETA PRODUKTUEN BALIO ERANTSIA:

29 ekoizleren erantzunak izan ditugu kontuan puntu hauek aztertzerakoan, hau da, aktibitatea daukaten ekoizleenak.

3.8.1 Transformazio guneak:



Grafiko 23. Transformazio guneak.

Aurreko grafikoan antzeman dezakegunez, 31 ekoizletik 12rek daukate transformazio gune bat eta aipagarria iruditzen zaigu ekoizle batek bi transformazio gune dituela, honek tolare bat eta sukalde bat dauzka. Orduan denera 13 transformazio gune daude aztertu ditugun esplotazioetan.

Transformazio guneei dagokionez, bi gaztandegiak dira.

Hiru sukaldeak ditugu, ostalaritzara dedikatzen dira beraien zati batean, bik jatetxerako sukaldea dute eta besteak beraren bezeroentzat.

Amaitzeko, zortzi tolare dauzkagu. Zazpi martxan daude, baina autokontsumorako erabiltzen dituzte eta bat zaharra dago eta ez dute erabiltzen.

3.8.2 Produktuen balio erantsia:



Grafiko 24. Produktuen balio erantsia.

31 ekoizletik 13ren produktuek daukate balio erantsia.

Hauetariko hiruen kasua da, beraiek saltzen dituzten sagarrekin sagardoa egiten duela beste batek, beraiek zuzenean ez diotela balio erantsi hori ematen, baina hiru hauetatik birek, beraientzako autokontsumorako egiten dute sagardoa. Beste bost ekoizle daude sagardoa egiten dutenak, baina hauek autokontsumorako.

Jatetxea duten esplotazioaren kasuan, baiezkoen taldean sartu ditugu, sukaldean produktuak sukaldatu eta balio erantsi bat ematen dietelako.

Azkenik, bi ekoizle dauzkagu gazta egiten dutenak.

3.9 ONDORENGOTZA:

Nekazal edo baserri jarduerarekin lotuta, ondorengotzak duen garrantzia izugarria da, dagoeneko jarduerak burutzen dituztenak mantentzea ezinbestekoa da ezagutzen duguna mantendu ahal izateko.

Puntu hau ikertzerakoan eta grafikoa egiterakoan, elkarrizketatu ditugun Zestoako baserritar guztiak hartu ditugu kontuan, jarduera dutenak eta jarduerarik ez dutenak.



Grafiko 25. Etorkizunerako egoera.

Grafiko honetan antzeman dezakegunez, hiru ekoizle dira egungo ondorengotza, hau da, gazteak dira eta ez dute pentsatu beraien ondoren zer gertatuko den.

Elkarrizketatutako ekoizle guztietatik, zortzik argi daukate ondorengotza badutela. Kasu hauetan erreleboa familian daukate, ez dago inor kanpoko erreleboa daukanik. Puntu honetan badaude bi esplotazio erreleboa hasia dela bertan lanean, bietan baserri misto bezala.

Elkarrizketatutako 31 hauetatik hiru bakarrik dira erreleborik ez daukatenak. Hauetako birek jada ez daukate aktibitaterik. Guztiak adierazi digute etxeko inork ez duela jarraituko eta gainera kanpoko inor ez dutela nahi beraien esplotazioan.

Hamaika ekoizle daude esplotazioari etorkizuna ikusten dietenak, baina etxeko inork jarraituko ez duela garbi daukatenak, kanpoko norbaitek jarraitzea aukera bat bezala ikusten dutenak.

Azkenik, badaude sei ekoizle ez direnak ondorengotzan pentsatzen hasi, ez dakitenak zer gertatuko den esplotazioarekin beraiek uzten duten unean.

Azaldu beharra ikusten dugu, gaur egun Zestoan gero eta gehiago ikusten dela baserri mistoa. Adierazgarria iruditzen zaigu, klaru daukatenak familiako norbaitek jarraitu behar duela esan digutenean, baserri misto kontzeptuan pentsatzen ari direla.

4. BERTAKO PRODUKTUEN KONTSUMOA

Interesgarria iruditzen zaigu Zestoako elikagaiekin lan egiten den sektore ezberdinak aztertzea, erabiltzen duten produktua bertakoa den edo ez jakiteko. Horretarako hiru lan ildo aztertu ditugu: elikagaien establezimenduak, jatetxe edota tabernak eta jangela kolektiboak.

Zestoako udaletik eman dizkigute Zestoako lokal ezberdinen datuak lanean hasteko. Telefonoz jarri gara beraiekin kontaktuan.

4.1 ZESTOAKO ELIKAGAIEN ESTABLEZIMENDUAK:

Guztira hamar elikagai establezimenduren zerrenda eman digute Udaletxetik.Hauetatik zortzirekin kontaktatzea lortu dugu.

Elkarrizketatu ditugun establezimendu guztiak adierazi digute bertako produktua erabiltzen dutela. Zortzi hauetatik, seik adierazi digute nori erosten dioten, beste birek baiezkoa eman dute baina ez dute askoz gehiago zehaztu. Batek adierazi digu beraien baratzeko produktuekin lan egiten dutela.

Konprobatu ahal izan dugune, Euskal Okela baimendutako harategia bat da, kontuan hartzeko datua.

4.2 ZESTOAKO JATETXE ETA TABERNAK:

Kasu honetan, udaletik 25 jatetxe edota taberna ezberdinen zerrenda bat eman digute.

Zerrenda horretatik, 14 establezimendurekin kontaktatu dugu.

Kontaktuan jarri garen 14 jatetxe edo tabernetatik batek ez du erantzun nahi izan, beste 13rek bertako produktuekin lan egiten dutela adierazi digute.

Aipatzeko datua iruditzen zaigu, bertako eta garaiko produktuez hitz egiten dugunean, establezimendu askotako arduradunek ez dakitela benetan zer esan nahi duen kontzeptu horrek. Beraientzako herriko denda batean erositako produktuak bertako izena jasotzen du. Hau horrela, esan dezakegu bertako eta garaiko kontzeptua ez daukatela bereganatuta.

4.3 ZESTOAKO JANGELA KOLEKTIBOAK:

Kasu honetan, azterketa hau burutu ditugun datak medio, ezin izan dugu kontaktuan jarri jangela batzuekin, oporrengatik itxita zeuden eta.

Zestoako bi egoitza ezberdinen jangelekin jarri gara kontaktuan. Biak esan digute bertako produktuekin egiten dutela lan, batak, herriko dendetan erosten dutela produktua esan digute eta bestearen kasuan, berain baratzeko produktuak erabiltzen dituztela.

5. HERRIKO AZOKA

Zestoako herrian azoka ostiraletan goizean zehar ospatzen da. Bertan, herriko edota inguruetako ekoizleek ez dute parte hartzen, birsalmentarako postuez osatutako azoka bat da.

Egoera honen aurrean, elkartu eta hitz egin dugu; 31 baserritarrei azokaren egoeraz galdetu diegu eta ea zerbait aldatuko luketen.

Ondorengo puntuetan aztertuko ditugu jasotako erantzunak.

5.1 AZOKAREN EGOERA:

Puntu honetan, hitz egin dugun 31 ekoizleren iritzia jaso dugu. Beraiek azoka nola ikusten duten.



Grafiko 26. Azokaren egoera herriko ekoizleen ikuspuntutik.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, pertsona batek esan du azoka gustukoa duela eta batek esan du baita ere eskasa dela. Hiru ekoizlerentzat ez dago gaizki azoka, baina guztiz ongi ere ez. Gehiengoak, 19k ez daukate azokaren egoeraren berririk, beraiek ez dira azokara joaten. Amaitzeko, zazpi ekoizle esan digute ez dakitela zer esan azokaren egoeraren baitan.

5.2 AZOKAREKIKO ALDAKETA/PROPOSAMENAK:

Hitz egin dugun 31 ekoizletik seik bakarrik eman dizkigute aldatzeko/hobetzeko proposamenak.

Sei hauek ados zeuden azokaren baitan zerbait egin beharra dagoela.

Guztien proposamenak ildo beretik doaz:

- Azokan bertako ekoizleen beharra dago.

- Bertakotasuna berreskuratu behar da.

- Bertako ekoizleak azokan parte hartzera animatu beharko litzateke.

- Agian azoka plaza sustatzen hasi aurretik, herrian bertako eta garaiko elikagaiak kontsumitzea sustatu beharko litzateke. Horretarako herrian gune/denda bat ireki beharko litzateke, soilik bertako eta garaiko produktuak saltzen dituena.

5.3 AZOKAN PARTE HARTZEA:

31 elkarrizketatutik, bik esan dute azokan salmenta hasiko liratekeela. Batak esan du bertako ekoizle talde bat elkartu ezkero pentsatuko lukeela, bera bakarrik ez liratekeela hasiko eta besteak berriz aukera bat bezala ikusi du, baina baiezko borobil bat esan gabe.

6. TURISMOA

Gai honen baitan, hiru puntu ezberdinez hitz egin dugu elkarrizketatuekin: turismoaren ze eragin ikusten dute herrian, beraiei turismoak ze eragin sortzen dien eta turismoaren baitan zerbait aldatuko ote luketen edo proposamenik baduten

Ekoizle guztiekin (aktibitatea daukatenak eta ez daukatenak) hitz egin dugu.

6.1 TURISMOAREN ERAGINA HERRIAN:

Badaude bi ekoizle, orain urte batzuetatik honantz turismoaren beherakada bat ikusi dutenak herrian.

Esan beharra dago, gehiengoak, hitz egindakoen 21ek ez daukala turismoaren berririk.

Zazpik esaten dute turismoa herriarentzat positiboa dela eta bakar batek ikusten du turismoa negatiboa dela herriarentzat. Honek esaten duenez, turismoak landa eremua dena zikintzen du, ez du errespetatzen.

6.2 TURISMOAREN ERAGINA EKOIZLEEI:

Hitz egindako ekoizle guztietatik, seik esaten dute beraiengan eragin positibo bat dutela, beraien produktuak erostera joaten direlako esplotazioetara, bisitak egiten dizkietelako edota ostalaritza munduan lan egiten dutelako eta horrek bizirauten laguntzen dietelako.

22 ekoizlerentzat ez dauka eraginik.

Badaude hiru ekoizle beraientzat eragin negatiboa duena. Arrazoiak:

- Turisten txakurrak aske joaten dira eta hauen txiza eta kakak ez dituzte jasotzen.

- Esplotazio aurretik pasatzean, zuhaitzetan dauden frutak eta fruitu lehorrak hartzen dituzte.

- Etxe albotik doan herri bidea ezeztatuta gelditu zaie beraien lanetarako.

- Lasaitasun falta handi bat daukate.

- Beraien lanak ezin dituzte egoki burutu; turistei denak kalte egiten diete.

6.3 ALDAKETA EDOTA PROPOSAMENAK:

Hurrengo zerrendan daude ekoizleak emandako proposamenak edota beraiek ikusten dituzten aldaketak:

- Turismoa lehen sektorearekin gehiago lotu, turismo bulegotik bultzatuta, herriko esplotazioetara bisita gidatu, produktuen tailer ezberdinak… egitea.

- Turismoarekin lotuta dauden beste sektoreei (jatetxe, landetxe…) izena eman, ezagutzera eraman herritik kanpo.

- Herrian Lili jauregian edo Ekainberrin bisitak egin ostean, turistak herrian gelditzea eta bertan dirua uztea sustatzea.

- Turistei landa eremuarekiko errespetua exijitu: animaliak errespetatu, bidean aurkitutako itxitako langak ireki ondoren berriro ixtea, txakurrak mendian lotuta ibiltzea…).

- Turista asko esan omen dute herrian bizia falta dela, herria hilda aurkitzen dutela, horregatik ez direla herrian gelditzen. Eraren bat aurkitu herriari bizia emateko.

- Turismoa auzoetara bideratu. Zestoako auzo askotan pertsonaia esanguratsu asko jaio eta bizi izan dira, hori aprobetxatuz herriko auzoak ezagutzera eraman.

- Turistentzako auzoen arteko loturak egin, mendiz, bide gorri bitarteaz…

7. BEHARRAK, PROPOSAMENAK, ESKAERAK

Bildu garen Zestoako 31 ekoizleren beharrak, proposamenak edota eskaerak bildu ditugu atal honetan.

Hauek aztertzerakoan, egokiena banaketa bat egitea dela iruditu zaigu, hau da, alde batetik ekoizleak auzoka banatu ditugu eta auzorako egin dituzten ekarpenak sailkatu ditugu eta beste puntu batean, egin dituzten ekarpen orokorrak. Hau horrela, azpi atal hauetan banatuta gelditu da: Etorra, Akua, Aizarna, Meagako errepidea, Lasao, Endoia, Arroa behea, Arroa erreka, Arroa goikoa eta orokorrak.

7.1 ETORRA:

Etorra auzoan bizilagun batekin elkartu gara. Ondoren zerrendatu ditugu auzo honetan azaldu diren behar, proposamen edota eskaerak:

- Auzoan dauden telefono finko, internet, telebista eta mugikor estaldura arazoak konpondu.

7.2 AKUA:

Akua auzoan sei bizilagunekin elkartu gara.

- Zuntz optikoa auzoko etxe guztietara iristea.

- Auzoan mugikor estaldura hobetu.

- Auzoan zehar lurrean parrillak ipintzea auzoko bizilagunekin adostuta zein den lekurik egokiena edota non behar diren.

7.3 AIZARNA:

Auzoan hamar bizilagunekin elkartu gara.

- Ekoizleek daukaten ur arazoa konpondu. Auzoko lur sail batzuetara urik ez da iristen baina animaliak egoten dira bertan bazkatzen. Laguntza eske joan dira udalera baina ez diete kasurik egiten. Laguntza bat eskaini arazoari aurre egiteko.

- Auzoko ubideen garbiketa bat.

- Auzoko plastiko zerbitzu bilketa hobetu. Jasotze puntuak ez dira errespetatzen eta gainera haizea egiten duenean plastikoak hegan ateratzen dira.

- Kamioi eta auzo nukleoko bizilagunekin ekoizleak daukaten arazoari aurre egin. Laguntza bat eskaini eta arazoa konpontzen saiatu.

- Auzoan zehar lurrean parrillak ipintzea auzoko bizilagunekin adostuta zein den lekurik egokiena edota non behar diren.

- Auzoko zabor bilketa hobetu. Auzo nukleoan egotea egokia ikusten dute baina nukleotik haratago bizi diren biztanleei zerbitzua gerturatu, bestela kilometroak egin behar dituzte eta zaborra bota ahal izateko.

- Auzoan dagoen txakur arazoari aurre egin. Aske ibiltzen dira eta txiza eta kaka nonahi egiten dute. Gero lur sailetan egin eta ezin dira bertako belarrak moztu edota bertan lan egin.

- Auzoan dauden erabili gabe eta udalaren jabegokoak diren lur sailei irtenbide bat eman. Ekoizleak behar ezkero eta eskaera bat egiten badute beraien esku utzi.

7.4 MEAGAKO ERREPIDEA:

Biztanle batekin elkartu gara.

- Internet zerbitzua hobetu puntu honetan, lanerako beharrezkoa daukate eta.

7.5 LASAO:

Lasao auzoan bi bizilagunekin elkartu gara.

Ez dute auzorako ekarpenik egin.

7.6 ENDOIA:

Bi bizilagunekin elkartu gara Endoia auzoan.

- Endoiara doan errepidearen konponketa bat, zirkulazio handi daukan errepide bat da eta ez dago batere ondo.

7.7 ARROA BEHEA:

Bost biztanlerekin elkartu gara.

- Auzoko zabor bilketa hobetu. Auzo nukleoan egotea egokia ikusten dute baina nukleotik haratago bizi diren biztanleei zerbitzua gerturatu, bestela kilometroak egin behar dituzte eta zaborra bota ahal izateko.

7.8 ARROA ERREKA:

Arroa Errekan hiru biztanlerekin elkartu gara.

- Auzoko zabor bilketa hobetu. Auzo nukleoan egotea egokia ikusten dute baina nukleotik haratago bizi diren biztanleei zerbitzua gerturatu, bestela kilometroak egin behar dituzte eta zaborra bota ahal izateko.

7.9 ARROA GOIKOA:

Auzoan bizilagun batekin elkartu gara.

- Autobus zerbitzua auzoan goraino iristea.

- Auzoan hainbat telefono poste erorita daude, abisua pasata daukate telefonia konpainiari baina ez diete kasurik egiten, udalak zerbait egin ahalko luke?

7.10 OROKORRAK:

Erabat ados azaldu dira hitz egin dugun ekoizleak: Udala eta baserritarren arteko erlazioa sendotu behar da.

Ondoren zerrendatuta daude jaso ditugun ekoizleen proposamen, behar edota eskaera ezberdinak:

- Baserri bideak, herri bideak: baserri bide eta herri bideen mantendu bat, auzo denetan irten den gaia izan da. Azpiegitura aldetik mantendu bat eta horrez gain bide ertzak sarriago garbitzea.

- Etxe berrien eraikuntza: herriko auzoetan etxe berriak egin nahi direnean, bakoitzaren terrenoetan oztopoak jarri beharrean erraztasunak jartzea eta laguntza eskaintzea.

- Pinuak: pinu gaitzaren aurrean zerbait egitea.

- Purina: purinaren lege berria irten da, horren aurrean baserritarrei babesa eta aholkularitza.

- Artilea: arazo bat dago artilearekin, irtenbide bat aurkitu behar zaio, ekoizleek ezin baitute beraien kabuz eta beraiek bakarrik ezer egin.

- Baserri mistoak: baserri mistoari laguntza gehiago eskaini, baserri mistoa bultzatu.

- Aparkalekua: herrian aparkaleku arazoa dago. Honen aurrean zerbait egin, auzoetatik joaten den jendeak ez dauka autoa non laga, lotsagarria iruditzen zaie Zestoa bezalako herri batean TAO zerbitzua egotea.

- Baserritarrei gehiago lagundu: orain arte diskriminazio negatibo bat jasan dute, beraientzako egokiena diskriminazio positibo bat edukitzea da.

- Ur asko erabiltzen duten esplotazioei prezioa jaitsi.

- Udala eta baserritarren artean bilerak egiteko ohitura instalatu. Gertutasun bat sortu beharra ikusten dute, harremanak sendotu ahal izateko.

- Titular aldaketa: esplotazioetan titular aldaketak egiteko erraztasun gehiago.

- Ekoizleak: esplotazioetatik bizi nahi duten ekoizleei laguntza gehiago eman, oztopo gutxiago jarri.

- Zaborra: zaborra sailkatu, auto konposta egiten dutenei laguntza gehiago adibidez, tasa baxuagoak jarriaz.

- Gazte ekintzaileei laguntza gehiago eskaini.

- Bertako produktua: bertako produktua sustatuko duen ekintza ezberdinak burutu, azoka, dendak, azoka bereziak, ekoizleak bilatu… Baserritarren lana behar den bezala baloratu.

- Baimenak: landa eremurako baimen ezberdinak eskatzerakoan, oztopoak izan beharrean laguntza gehiago eskaini.

- Herriko lanak: herriko lanetarako herriko jende edo enpresak kontratatu ez kanpokoak, bertan eman lana.

- Animaliak: basurde eta orkatzekin dauden arazoei aurre egin.

- Pabiloi berriak, esplotazio berriak egiteko, instalakuntzak hobetzeko… erraztasun gehiago eman eta ez oztopoak bakarrik. Irtenbideak bilatu sortu daitezkeen arazo ezberdinei.

- Auzo txikiak: auzo txikiei bizi gehiago eman, denak pixkanaka hiltzen ari dira.

- Euskal ohiturak berreskuratu: ganadu feriak, herri kirolak…

- Mendiak: mendiak, eraikinak bezala, ITE bat pasatu beharko lukete.

- Diru laguntzak: diru laguntzen mekanismoa aldatu, ekoizle handiei bakarrik lagundu beharrean, laguntza gehiago eskaini esplotazio/ekoizle txikiei.

- Lursailen bateratasuna sustatu.

- Landa eremuetan telefono finko, internet, telebista eta mugikor estaldura ona egotea bultzatu, herri nukleoa bezain garrantzitsua da landa eremua.

8. EKINTZA PLANA

EKINTZA	EPE LABURRA	EPE ERTAINA	EPE LUZEA	ARDURADUNAK	BESTE ARDURADUNAK
Udala eta baserritarren arteko harremanak errazteko bideak jorratu	X			Udala	Baserritarrak, Urkome
Lurren eskuragarritasuna bultzatu		X		GFA	Udala
Azokaren egoera	X			Udala	Urkome
Landa eremuko errepideen konponketarako lehentasun zerrenda bat egin	X			Udala	Urkome
Landa eremuko errepideen mantendu lanak	X			Udala	Urkome Baserritarrak
Landa eremuko beharren zerrenda	X			Udala	Urkome
Sektorea aktibatu, gazteak sartu	X			GFA	Udala, Urkome, Fraisoro, HAZI
Bertako eta garaiko produktua sustatu	X			Udala	Urkome
Herriko ekoizleen ekoizpena sustatuko duten irizpideak lehiaketa publikoetako pleguetan sartu		X		Udala	
Ostalaritzako eragileekin elkarlana sustatu		X		Udala	Urkome, ostalariak,
Herriko dendariekin elkarlana sustatu		X		Udala	Urkome, dendariak,
Herriko bazkari kolektiboetan bertako produktua sustatu		X		Udala	
Udalerrian propaganda, informazio eta komunikazio kanpaina ikusgarriak egin		X		Udala	Urkome
Sentsibilizazio kanpainak	X			Udala	Urkome

1. Udala eta baserritarren arteko harremanak errazteko bideak jorratu.

2. Lurren eskuragarritasuna bultzatu: Lurren beharrean dauden ekoizle eta ekoizle berriak eskuragarri edukitzea.

3. Azokaren egoera: Azokaren egoera hobetuko dituen pausoak egin (ekoizle berriak, espazioa…).

4. Landa eremuko errepideen konponketarako lehentasun zerrenda bat egin: Zerrendatu konpontzeko dauden errepideak bakoitzaren lehentasunaren arabera. Orden hori jarraituz, konponketak burutzen joan.

5. Landa eremuko errepideen mantendu lanak: Urtean zehar errepide ezberdinen mantendua aurrera eraman.

6. Landa eremuko beharren zerrenda: Zerrenda bat egin eta urteen poderioz zerrenda horretako beharrak asetzen joan.

7. Sektorea aktibatu, gaztea sartu: 1.sektorean gazte, langabetu eta ikasleen txertaketa bultzatu. Ondorengotza falta handia ikusi da elkarrizketak egin ondoren. Elkarlanerako sare bat sortu udala eta eragile ezberdinen artean.

8. Bertako produktuak sustatu: bertako produktuak kontsumitzen hastera lagundu biztanleria. Horretarako ekintza ezberdinak burutuz: azokan bertako ekoizleak parte hartzera bultzatu, azoka bereziak…

9. Herriko ekoizleen ekoizpena sustatuko duten irizpideak lehiaketa publikoetako pleguetan sartu: Eraikuntza publikoetako jangelak, jatetxeak edota tabernak lehiaketara ateratzean, balorean jarri bertako produktuen erabilera.

10. Ostalaritzako eragileekin elkarlana sustatu: Herriko taberna eta jatetxeak bertako eta garaiko produktuak erabiltzera bultzatu. Elkarlanerako sare bat sortu udala, Urkome eta ostalarien artean.

11. Herriko dendariekin elkarlana sustatu: Herriko dendetan bertako eta garaiko produktuen salmenta egitera bultzatu. Elkarlanerako sare bat sortu udala, Urkome eta dendariekin.

12. Herriko bazkari kolektiboetan bertako produktua sustatu.

13. Udalerrian propaganda, informazio eta komunikazio kanpaina ikusgarriak egin: Toki ezberdin eta estrategikoetan bertako produktua eta azoka bultzatuko dituen propaganda, informazio eta komunikazio kanpaina ezberdinak gauzatu.

14. Sentsibilizazio kanpainak: Biztanleriari bideratutako elikagaien, hauen jatorriaren eta nutrizioaren inguruko sentsibilizazio kanpainak egin.